

Euskal AEko Merkataritzak % 7,4ko jaitsiera izan du salmentetan 2020. urte osoan


Merkataritzako salmentak % 4,5 gutxiago izan dira urteko laugarren hiruhilekoan aurreko urteko laugarren hiruhilekoaren aldean

Eustatek landutako datuen arabera, **2020ko balantzeak** Merkataritzaren sektoreko salmenten guztizkoan (handizkako merkataritza, txikizkako eta ibilgailuen salmenta eta konponketa) % 7,4ko jaitsiera metatu du lan-egutegiko termino homogeneoetan eta prezio finkoetan.

2020. urte osoan, Covid-19ak eragindako krisiari aurre egiteko hartutako murrizketek markatua, Merkataritzaren sektoreko hiru azpisektoreek intentsitate desberdineko murrizketak izan dituzte salmentetan.

Txikizkako merkataritzan salmentak % 4,9 murriztu dira, Handizkako merkataritzan % 8,5 jaitsi dira, eta Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan % 11,4.

Merkataritzako indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Bizkaian, oro har, Merkataritzaren sektorean salmentek % 8,3ko jaitsiera izan dute prezio finkoetan 2020an zehar; Gipuzkoan, % 6,7koa; eta Araban, % 5,7koa.

Merkataritzaren sektorean lanean ari diren enplegatuen kopurua % 1,8 jaitsi da 2020. urte osoan, aurreko urteko batezbestekoaren aldean.

2020KO LAUGARREN HIRUHILEKOA

2020ko laugarren hiruhilekoko datuak soilik azterturik, Euskal AEko Merkataritzako salmentek % 4,5eko jaitsiera izan dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, termino errealean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, eta urtaro-eraginak behin kenduta, Merkataritzaren sektoreak % 1,2ko jaitsiera izan du prezio finkoetan.

Merkataritzaren barruan, urte arteko bilakaera negatiboa izan da azpisektore guztietan. Horrela, urteko azken hiruhilekoan Handizkako merkataritzaren salmentak % 7,1 jaitsi dira, Ibilgailuen salmenta eta konponketan % 3,2 jaitsi dira, eta, azkenik, Txikizkako merkataritzaren salmentak aurreko urteko laugarren hiruhilekoan baino % 1,7 gutxiago izan dira azken hiruhilekoan.

Lurraldeka, Bizkaia eta Gipuzkoak % 5,6ko eta % 5,1eko jaitsiera izan dute, hurrenez hurren, Merkataritza osoan; Arabak, berriz, % 0,1eko igoera apurra izan du, hori dena 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta eta prezioen eragina kenduta.

Azkenik, Euskal AEko Merkataritzako langile enplegatuen indizeak % 3,1eko aldakuntza negatiboa izan du 2020ko azken hiruhilekoan, 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza. Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. IV/2020

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
ÍNDICE GENERAL	-4,5	-1,2	-7,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-3,2	-4,2	-11,4
Handizkako merkataritza	-7,1	-1,8	-8,5
Txikizkako merkataritza	-1,7	-0,7	-4,9
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	0,1	-0,1	-5,7
Bizkaia	-5,6	-1,4	-8,3
Gipuzkoa	-5,1	-1,4	-6,7
ENPLEGUA	-3,1	-0,9	-1,8

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko

Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enpleguaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, laugarren hiruhilekoko indizea laginaren % **93,08ko estaldurarekin** kalkulatu da –laginaren informazioa urtarrean zehar jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62